



GIPUZKOAKO SENDAGILEEN ELKARGO OFIZIALA
COLEGIO OFICIAL DE MÉDICOS DE GIPUZKOA

Kezkaturik medikuntzako OPE azterketen gertakarien aurrean

2018ko ekainak 6

Gipuzkoako Sendagileen Elkargoatik gure kezka azaldu nahi dugu medikuntzako OPE azterketen inguruan argitaratzen ari diren informazioengatik.

Azterketa hauen atzean sendagile ugariren esfortzua dago; hilabeteak eman dituzte ikasten, aisialdiari eta familiarterako denborari uko eginez eta, zenbait kasuetan, baita ikasi ahal izateko baimen bereziak eskatzen ere.

Elkargotik balioan jarri nahi dugu gure lankideek egin duten esfortzua. Azterketen filtrazio posibleak eta horrek hedabideetan eragin duen zalapartak esfortzu hori, nolabait, ezkutatu egin du. Martxan diren ikerketek argituko dute irregulartasunak egon ziren ala ez.

Garrantzitsua da, baina, azterketa egin zuten ehunka sendagileren ahalegina kontuan izatea: horietako batzuk plaza hartzeko aukera dute, euren merituengatik eta ikasten pasan dituzten orduei esker.

Horregatik, Elkargotik espero dugu egoera honi ahal den irtenbiderik onena ematea, beti ere, justiziaren printzipioari eutsiz eta esan bezala medikuntzako profesionalek egin duten esfortzua errespetatuz.